AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren beharamunean hartuko du indarra Agindu honek. Igogailuentzat finkatutako tarifek, nolanahi ere, 1995eko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituzte lege-ondorioak, eta Ibilgailuen Azterketa Teknikoek agindua izenpetzen denetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 1995eko urtarrilak 31.

Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburua,
JAVIER RETEGUI AYASTUI.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, produciendo, en todo caso, efectos jurídicos desde el 1 de enero de 1995 en relación con las tarifas previstas para Aparatos Elevadores, y desde la fecha de su firma para Inspección Técnica de Vehículos.

En Vitoria-Gasteiz, a 31 de enero de 1995.

El Consejero de Industria, Agricultura y Pesca.
JAVIER RETEGUI AYASTUY.

## OSASUN SAILA

## 795

29/1995 DEKRETUA, urtarrilaren 17koa, botikak eskualdatzeko ihardunbidea finkatzen duena.

Euskal Autonomi Elkarteko Ordenazio Farmazeutikorako ekainaren 17ko 11/1994 Legearen 17. atalean botikak eskualdatzeko ihardunbide berri bat finkatzen da.

Botiketan ematen den zerbitzua interes publikokoa denez gero, botiketan ematen den sorospen farmazeutikoaren kalitatea hobetzeko ardura hartu behar du bere gain osasun administrazioak. Ildo horretatik, kostubidezko eskualdaketa egin behar denerako, besteak beste, baldintza hau ezartzen da: saltzaileak jarritako prezioa ordaindu eta beste baldintzak betetzeko gertu dauden botikarioen artean, merezimendu lehiaketa egin behar dela. Hala, botika baten jabetza eta titularitatea lortzeko, ez da ekonomia izango baldintza bakarra.

Jakina denez, erosi nahi duten botikarioekin negoziatu ondoren, botikario titularrak finkatuko ditu eskualdaketarako prezioa eta beste baldintzak. Hala ere, osasun administrazioak aukeratuko du botikariorik egokiena, arau honetan finkatutako ihardunbide eta merezimenduen arabera.

Horrela, neurri batean bada ere, berdindu egin nahi dira bi bide hauek: bata, botikaren baten titularitatea eta jabetza eskualdaketa bidez lortzeko bidea eta, bestea, eskatzaileen merezimenduei balioa emanez botikaren titularitatea eta jabetza lortzeko bidea.

Osasun eskualde berean instalatutako botiketako botikario titularrei, bestalde, eskualdatu nahi den botika amortizatzeko aukera ematen zaie, beti ere botika lortzeko interesa dutenek egindako eskaintza berdintzen badute. Hartara, neurri batean bada ere, Euskal Autonomi Elkarteko Ordenazio Farmazeutikorako Legearen azken xedapenean ohartemandakoa beteko da.

Ondorioz, kolegio profesionalei entzunda eta Osasun

## DEPARTAMENTO DE SANIDAD

## 795

DECRETO 29/1995, de 17 de enero, por el que se establece el procedimiento para la transmisión de oficinas de farmacia.

El artículo 17 de la Ley 11/1994, de 17 de junio, de Ordenación Farmacéutica del País Vasco, establece un nuevo procedimiento para la transmisión de oficinas de farmacia.

Dada la condición de servicio de interés público de las oficinas de farmacia, la Administración Sanitaria debe velar por mejorar la calidad de la atención farmacéutica que se presta en las mismas. En este sentido, en las transmisiones a título oneroso, se plantea, entre otros, el requisito de la realización de un concurso de méritos entre los distintos farmacéuticos que estén dispuestos a satisfacer el precio y demás condiciones establecidas por el vendedor, de manera que el factor económico no sea el único que sirva para acceder a la propiedad y titularidad de una oficina de farmacia.

Evidentemente, el precio y demás condiciones de la transmisión son fijados por el farmacéutico titular, previa negociación con los farmacéuticos interesados en la adquisición, si bien la selección del farmacéutico más adecuado lo realiza la Administración Sanitaria, de acuerdo con el procedimiento y méritos que se establecen en la presente norma.

Se pretende así equiparar, en cierto modo, el acceso a la titularidad y propiedad de una oficina de farmacia mediante traspaso con el acceso a la titularidad y propiedad de una nueva oficina de farmacia en el que se priman los méritos de los solicitantes.

Se da, así mismo, opción a los farmacéuticos titulares de oficinas de farmacia instaladas en la misma zona de salud a que, tras igualar la oferta realizada por terceros interesados en la adquisición, puedan amortizar la oficina de farmacia que se pretende transmitir, cumpliendo de esta manera, al menos parcialmente, las previsiones de la Disposición Final de la citada Ley de Ordenación Farmacéutica del País Vasco

En su virtud, oídos los Colegios Profesionales y a

sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1995eko urtarrilaren 17an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. atala.*– Botikak eskualdatu ahal izateko, gutxienez 3 urte igaro beharko dira, behin botika hori sortu edo azkenengo eskualdaketa egin eta gero, botika ihardunean jartzeko beharrezkoa den baimena lortzen denetik aurrera. Salbuespen izango da, hala ere, botikako botikario titularra hil, jubilatu edo gaitasun-gabetzen bada edo epaileak haren ausentzia deklaratzen badu.

*2. atala.*– 1.– Botikako botikario titular eta jabe denak, Euskal Autonomi Elkarteko Ordenazio Farmazeutikorako ekainaren 17ko 11/1994 Legearen 17. ataleko 3. idazatian ohartemandako pertsonei barik, beste bati kostubidez eskualdatu nahi badio, eskualdatzeko baimena eskatu beharko dio osasun administrazioari. Eta eskabidearekin batera honako informazioa igorri beharko dio:

a) Botika kokatuta dagoen lokala erabiltzeko, ea jabetza eskubidea edo bestelakoren bat duen; horrez gain, zehaztu egin behar du botikaren azalera zein den eta ea eskualdatzeko modukoa den edo ez.

b) Bertan ari diren pertsonak zenbat diren, eta beren kategoria, antzinatasuna eta ordain-sariak.

c) Azken bi ekitaldietan aitortutako salmentak.

d) Beheragoko 3.a. atalean aipatutako epearen iraupena.

e) Botikaren ehuneko zenbat eskualdatzen den.

2.– Botika eskualdatzeko espedientea hasten denean, legez finka daitezkeen tasak ordaindu beharko dira.

*3. atala.*– Botikaren bat eskualdatzeko proposamenik egiten bada, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko du horren iragarpena Osasun Sailak. Botika kokatuta dagoen eskualde farmazeutikoa aipatuko du bertan, baita erosle izango den botikarioa zehazteko merezimendu lehiaketa arautuko duten arauak ere.

Iragarpenean honako informazio hau ere agertuko da:

a) Bi hilabeteko epea, botika erosi nahi duten botikarioek eskualdaketa egin nahi duen botikarioarekin negoziazioak egin ditzaten. Epe hori luzatu ere egin daiteke, eskualdatu nahi duen botikarioak hala eskatzen badu.

b) Baremoak, beharrezkoak diren baldintzak eta, kasua bada, ordaindu beharko diren tasak ere aipatuko dira.

*4. atala.*– 1.– Eskualdatu nahi den botikari buruzko informazioa emango die botikarioei Osasun Sailak; baina, horretarako, idatziz egin beharko dute eskabidea, eta behar bezala egiaztatuko dituzte beren buruak. Hona hemen informazio puntu horiek:

propuesta del Consejero de Sanidad, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión de 17 de enero de 1995,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– La transmisión de oficinas de farmacia sólo podrá llevarse a cabo cuando hayan transcurrido al menos 3 años desde la autorización de funcionamiento correspondiente a su creación o a su última transmisión, salvo por fallecimiento, jubilación, incapacitación o declaración judicial de ausencia del farmacéutico titular de la oficina de farmacia.

*Artículo 2.*– 1.– El farmacéutico titular y propietario de la oficina de farmacia que pretenda transmitirla a título oneroso, a persona distinta de las previstas en el apartado 3 del artículo 17 de la Ley 11/1994, de 17 de junio, de Ordenación Farmacéutica del País Vasco, solicitará de la Administración Sanitaria la autorización de transmisión. Dicha solicitud irá acompañada de la siguiente información:

a) Título, de propiedad u otro, en virtud del cual se utiliza el local donde está ubicada la oficina de farmacia, especificando superficie y posibilidad o no de su transmisión.

b) Personal existente: número, categoría, antigüedad y retribución.

c) Ventas declaradas en los dos últimos ejercicios.

d) Duración del plazo al que se refiere el artículo 3.a.

e) Porcentaje de oficina de farmacia que se transmite.

2.– La apertura de un expediente de transmisión de oficina de farmacia implicará, en su caso, el abono de las tasas que al efecto pudiesen determinarse legalmente.

*Artículo 3.*– El Departamento de Sanidad procederá a publicar en el Boletín Oficial del País Vasco el anuncio relativo a la propuesta de transmisión de una oficina de farmacia con indicación de la zona farmacéutica en que esté ubicada, así como las normas que regirán en el concurso de méritos para determinar al farmacéutico adquirente.

El anuncio contendrá también la siguiente información:

a) Un plazo de dos meses de duración, para que los farmacéuticos interesados en la adquisición puedan desarrollar las negociaciones pertinentes con el farmacéutico interesado en la transmisión. Dicho plazo podrá ser ampliado si así lo solicita el farmacéutico transmitente.

b) Referencia a los baremos, requisitos necesarios y tasas que, en su caso, sean preceptivas.

*Artículo 4.*– 1.– Los farmacéuticos, debidamente acreditados, que así lo soliciten por escrito, podrán ser informados por el Departamento de Sanidad, en relación con la oficina de farmacia que se pretende transmitir, sobre los siguientes extremos:

– Botika hori zein herritan kokatuta dagoen.

– Azken bi urteetako aitortutako salmentak.

– Botika kokatuta dagoen lokala bera ere eskualdatu daitekeen edo ez.

– Botikan lan egiten dutenen zerrenda.

– Botika hori amortizagarria den edo ez.

2.– Eskabide hori aurkezteaz ez da 3 a) atalean ohartemandako epea etengo.

*5. atala.*– 1.– Goragoko 3.a) atalean ohartemandakoaren arabera Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako iragarpenean ezarritako epe barruan, espedientean jasotako informazioa eska diezaiokete Osasun Administrazioari botika hura erosteko interesa duten botikarioek. Horretarako, sorospen farmazeutikoarekin loturak dituen zentroren batean 3 urteko lanbidea egiaztatu beharko dute eta, kasua halakoa bada, legez ezar daitezkeen tasak ordaindu. Ondorioz, botika eskualdatu nahi duen botikarioarekin negoziazioak landu ahal izango dituzte.

2.– Botika erosteko interesa duten botikarioen zerrenda emango dio Osasun Administrazioak botika eskualdatu nahi duen botikarioari, botikario horiek ezagutu eta komeni zaizkion negoziazioak burutu ditzan.

*6. atala.*– 1.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariko iragarpenean ohartemandako epea amaitu eta gero, oraindik botikario batek ere ez badu botika erosteko asmorik agertu, ugazabak, bere aldetik, edozein botikoriori eskualdatzeko ahaleginak egin ditzake, aipatutako epea amaitzen denetik kontatzen hasi eta 3 urteko epean. Adostasunik lortzen bada, bai botikario erosleak eta bai eskualdatzaileak, biok emango diote horren berri Osasun Administrazioari.

2.– Osasun Administrazioak eskualdaketa egiteko baimena eman aurretik, osasun eskualde berean kokatutako beste botikarioen esku jarriko du lortutako akordioaren berri, baldin eta eskualde horretako biztanle kopurua botika bakoitzeko 2.500 biztanleko tartera heltzen ez bada. Horrela, egoki baderitzote, botika amortizatzeko eskabidea aurkeztu ahal izango dute, bai eskualdaketarako akordioan finkatutako baldintzetan, zein haiek eta eskualdaketa egin nahi duen botikarioak itundutako baldintza moduetan.

Amortizaziorako eskabidea 15 eguneko epean egin beharko da. Horrekin batera, itundutako prezioaren ordainketa bermatzeko abala eta, kasua bada, horretarako ezar daitezkeen tasak ordaindu direla egiaztatzeko ziurtagiria aurkeztu beharko dira.

3.– Dena delako botika hori amortizatzeko baldintzak betetzen ez badira, edo osasun eskualdean instalatutako beste botikario guztiak, aipatutako epean, horretarako duten eskubideaz baliatzen ez badira, eskualdaketa egiteko baimena emango du Osasun Administrazioak; baina, erosleak baldintza bat bete beharko du: botika ihardunean jartzeko baimena lortu beharko duela, alegia.

4.– Eskualdaketa egiteko baimena eman eta gero, 3 hilabeteko epea izango du erosle den botikoariak botika ihardunean jartzeko baimena eskatzeko.

– Municipio en que está ubicada la oficina de farmacia.

– Ventas declaradas en los dos últimos años.

– Posibilidad o no de transmisión del local en que está ubicada la oficina de farmacia.

– Personal existente en la oficina de farmacia.

– Posibilidad o no de amortización de la oficina de farmacia.

2.– La presentación de dicha solicitud no interrumpe el plazo previsto en el artículo 3 a).

*Artículo 5.*– 1.– Dentro del plazo establecido en el anuncio publicado en el Boletín Oficial del País Vasco, de acuerdo con lo previsto en el artículo 3.a., los farmacéuticos interesados en la adquisición, y que acrediten 3 años de ejercicio profesional en algún centro relacionado con la atención farmacéutica, podrán solicitar de la Administración Sanitaria, previo pago, en su caso, de las tasas que al efecto pudiesen determinarse legalmente, la información obrante en el expediente a fin de que puedan desarrollar las negociaciones pertinentes con el farmacéutico interesado en la transmisión.

2.– A los efectos de identificar a los farmacéuticos con los que pueda mantener las negociaciones que considere oportunas, la Administración Sanitaria facilitará al farmacéutico transmitente la relación de los farmacéuticos que están interesados en la adquisición.

*Artículo 6.*– 1.– Si finalizado el plazo previsto en el anuncio del Boletín Oficial del País Vasco, ningún farmacéutico hubiera manifestado su interés por la adquisición de la oficina de farmacia, el propietario de la misma podrá intentar su transmisión en favor de cualquier farmacéutico durante el plazo de 3 años a contar desde la finalización del citado plazo. En caso de que el acuerdo se produzca, ambos farmacéuticos, adquirente y transmisor, darán traslado del mismo a la Administración Sanitaria.

2.– Con carácter previo a la concesión de la autorización de transmisión, la Administración Sanitaria pondrá a disposición de los farmacéuticos instalados en la misma zona de salud, en el supuesto de que en ella no se alcance la proporción de 2.500 habitantes por oficina de farmacia, el acuerdo alcanzado para que, si lo estiman oportuno, presenten solicitud de amortización, bien en los mismos términos del acuerdo de transmisión o en aquellos otros que hayan pactado con el farmacéutico transmitente.

La solicitud de amortización se deberá formular en el plazo de 15 días e irá acompañada del aval que garantice el pago del precio acordado y del justificante de abono de las tasas que, en su caso, al efecto pudieran determinarse.

3.– Si no se dieran las circunstancias para la amortización de la oficina de farmacia, o los farmacéuticos instalados en la zona de salud no la hubieran ejercitado en el plazo señalado, la Administración Sanitaria otorgará la autorización de transmisión condicionada a la obtención, por parte del adquirente, de la correspondiente autorización de funcionamiento.

4.– Una vez concedida la autorización de transmisión, el farmacéutico adquirente dispondrá de un plazo de 3 meses para solicitar la autorización de funcionamiento.

Eskabide horrekin batera honako agiri hauek aurkeztuko ditu:

a) Botikaren jabe dela egiaztatzeko ziurtagiria.

b) Zelako eskubideaz baliatuta erabiltzen duen botika hori kokatuta dagoen lokala bera.

c) Farmaziako lizentziatu titulua.

d) Euskal Autonomi Elkarteko Ordenazio Farmazeutikorako ekainaren 17ko 11/1994 Legearen 40. atalean aipatutako bateraezintasun kasuren batean ere sartuta ez dagoela adierazteko zinpeko aitorpena.

5.– Aurreko idazatian aipatutako epea amaitu arren, erosle den botikarioari berari egotzi dakizkiokeen arrazoiak medio, botika ihardunean jartzeko baimenik eskatzen ez badu, botika eskualdatzeko baimenari jarritako baldintza hori, beste 3 hilabeteko epea igaro ondoren, bete gabe geldituko dela jakinaraziko zaio. Ondorioz, baimenak ez du indarrik izango eta, administrazioko ondorioetarako, eskualdaketa egin nahi duen botikarioa izango da botikaren titularra eta jabea; beste hura, hala ere, ez da eremu zibilean legozkiokeen erantzukizunetatik libre geldituko.

6.– Baldin eta, eskatutako agiriak aurkezten direnetik, Osasun Administrazioan eskuduntzak dituen organoak erabakirik eman gabe 3 hilabete igarotzen badira, botika ihardunean jartzeko baimena eman egin dela ulertu beharko da.

*7. atala.*– 1.– Goragoko 3.a) atalean ohartemandako negoziazio epea amaitzen denetik beste 10 eguneko epean, eskualdaketa egin nahi duen botikarioak eskualdaketa egiteko baldintzak zeintzuk diren jakinaraziko dio Osasun Administrazioari. Honako puntu hauek azaldu beharko ditu:

a) Eskualdaketaren prezioa, lokalik sartu gabe.

b) Lokalaren prezioa, eskualdatzen bada, edo zelako baldintzetan erabili ahal izango den.

c) Langile eta guzti aldatzen bada botika hori, langile kopurua, horien maila, antzinatasuna eta ordainsariak agertu behar dira.

d) Eragiketa horretan izakinak ere eskualdatuko diren edo ez adierazi behar da. Baiezko kasuan, botikaren benetako eskualdaketa burutzen den egunean egingo da diru balorazioa.

e) Bermeak eta ordaintzeko modua.

f) Erosteko proposamena egiteko, derrigorrez jakin behar diren beste baldintza guztiak.

2.– Aurreko idazatian ohartemandako epea igaro arren, jakinarazpenik egiten ez bada, 3 hilabeteko epean hasi beharko ditu ihardunbidearen izapideak berriro ere; baina, hala egiten ez badu, ihardunbidea iraungi eta espedientea agirigordetegian sartuko dela jakinaraziko zaio interesatuari.

3.– Eskualdaketaren eskaintza loteslea izango da, eskualdaketarako baldintzen baliozko onarpena aurkezten den unetik bertatik aurrera.

4.– Botikarioak aurkeztutako eskaintza inork onartu baino lehenago, hasiera batean botika eskualdatzeko asmoa izan duen botikarioak berak atzera egitera, hortxe amaituko da ihardunbidea.

Dicha solicitud irá acompañada de la siguiente documentación:

a) Acreditación de su condición de propietario de la oficina de farmacia.

b) Título en virtud del cual utiliza el local donde está ubicada la oficina de farmacia.

c) Título de Licenciado en Farmacia.

d) Declaración jurada de no estar incurso en ninguna de las causas de incompatibilidad a que se refiere el artículo 40 de la Ley 11/1994, de 17 de junio, de Ordenación Farmacéutica del País Vasco.

5.– Transcurrido el plazo al que se refiere el apartado anterior sin que, por causa imputable al farmacéutico adquirente, haya solicitado la autorización de funcionamiento, se le advertirá que transcurridos 3 meses se entenderá incumplida la condición a que está sometida la autorización de transmisión, quedando ésta sin efecto y permaneciendo, a efectos administrativos, como titular y propietario de la oficina de farmacia el farmacéutico transmitente, sin perjuicio de las responsabilidades que en el ámbito civil pudieran corresponder.

6.– Se considerará concedida la autorización de funcionamiento si transcurren 3 meses desde la presentación de la documentación requerida sin que por el órgano competente de la Administración Sanitaria se haya dictado la correspondiente resolución.

*Artículo 7.*– 1.– En el plazo de 10 días, a contar desde la finalización del plazo de negociación previsto en el artículo 3 a), el farmacéutico transmitente comunicará a la Administración Sanitaria las condiciones de la transmisión con indicación de:

a) Precio de la transmisión, sin inclusión del local.

b) Precio del local, en caso de transmisión, o las condiciones en que se usaría el mismo.

c) En caso de que dicha oficina se transmita con personal, indicación del número, categoría, antigüedad y retribución.

d) Indicación de si la operación incluye o no la transmisión de existencias. En caso afirmativo su valoración económica se realizará en la fecha de la transmisión real de la oficina de farmacia.

e) Garantías y fórmula de pago.

f) Aquellas otras condiciones que sea necesario conocer para formular la propuesta de adquisición.

2.– Transcurrido el plazo previsto en el apartado anterior, sin que se haya efectuado la comunicación, se advertirá al interesado que, si en un plazo de 3 meses no reanuda la tramitación del procedimiento, se producirá la caducidad del mismo y el archivo del expediente.

3.– La oferta de transmisión se considerará vinculante desde el momento en que se presente una aceptación válida de las condiciones de la transmisión.

4.– El desistimiento por parte del farmacéutico que inicialmente tuvo la intención de transmitir la oficina de farmacia, antes de que algún interesado acepte la oferta formulada, dará lugar a la conclusión del procedimiento.

5.– Eskualdatzeko eskaintza balio osoz onartu ondoren, botika eskualdatu nahi zuen botikarioak eskualdaketarako espedientearekin jarraitzeko asmoan atzera egiten badu, ezingo da botika hori eskualdatzeko beste espedienterik hasi, eskaintza onartu dutenei eremu zibilean dagozkien eskubideei berariaz uko egiten ez badiote edo alde bien artean akordiorik lortu ezik.

Eskualdaketa egin behar zuen botikarioak atzera egiteaz kaltetuta gelditu direnek auzitegietara eramaten badituzte dagozkien egintzak, Osasun Administrazioak ez du botika hori eskualdatzeko beste inolako eskabide berriren izapiderik egingo, harik eta aurkeztutako erreklamazioaren gainean epai irmoa eman arte edo hasitako egintza horiek atzera bota arte.

*8. atala.–* 1.– Eskualdaketa egiteko prezioaren eta beste baldintzen berri Osasun Administrazioak jakin bezain pronto, osasun eskualde berean kokatutako beste botiketako botikarioen esku jarriko ditu, baldin eta eskualde horretako biztanle kopurua botika bakoitzeko 2.500 biztanleko tartera heltzen ez bada. Horrela, egoki baderitzote, botika amortizatzeko eskabidea aurkeztu ahal izango dute, bai eskualdaketarako proposamenean finkatutako baldintzetan, zein bi alderdiek itundutako baldintza moduetan.

Nola nahi ere, amortizaziorako eskabidea 15 eguneko epean egin beharko da. Horrekin batera, itundutako prezioaren ordainketa bermatzeko abala eta, kasua bada, horretarako ezar daitezkeen tasak ordaindu direla egiaztatzeko ziurtagiria aurkeztu beharko dira.

2.– Amortizaziorako baimena ematen bada, eskualdaketa egiteko hasitako espedientea erabakitakotzat joko da eta botika hori itxi egingo da.

*9. atala.–* 1.– Amortizazioa egiten ez bada, ordea, Ordenazio Farmazeutikorako Legean ohartemandako iragarpena eginez, argitaratu egingo dira botika eskualdatzeko proposameneko baldintza zehatzak, erosteko interesa dutenek ezagutu ditzaten. Hala, hamabost eguneko epea izango dute honako agiriok aurkezteko:

a) Botika eskualdatzeko baldintzen onarpena, eskualdaketa egin nahi duen botikarioak ohartemandako moduan.

b) Baremorako aurkeztutako merezimenduak.

2.– Eskualdaketaren prezioa eta beste baldintzak onartu eta gero, lotuta geldituko da eskatzailea.

*10. atala.–* 1.– Aurreko atalean aipatutako 15 eguneko epea amaitu eta gero, eskualdaketa egin nahi duenak jarritako prezioa eta beste baldintzak onartu dituztenek aurkezturiko merezimenduen balioespena egingo da. Dekretu honen eraskinean datorren baremoaren arabera punturik gehien lor dezanaren aldekoa izango da eskualdaketarako proposamena.

2.– Baremorako aurkeztutako merezimendu guztiak agiri bidez egiaztatu beharko dira. Lanbide edo irakaskuntzako esperientziari dagokionez, dagokion agintariak edo arduradunak egindako ziurtagiriaz egiaztatuko da.

3.– Batera bete daitezkeen lanbideak egiaztatzen badira, aldi berean egin direnen artean punturik gehien

5.– Una vez aceptada válidamente la oferta de transmisión, el desistimiento, por parte del farmacéutico transmitente, de su pretensión de continuar con el expediente de transmisión impedirá la posibilidad de iniciar otro expediente de transmisión de la misma oficina de farmacia, salvo acuerdo o renuncia expresa de los aceptantes de la oferta a los derechos que en el ámbito civil les pudieran corresponder.

En caso de que los perjudicados por el desistimiento hubiesen iniciado las acciones pertinentes ante los Tribunales competentes, la Administración Sanitaria no tramitará ninguna solicitud posterior de transmisión de dicha oficina de farmacia hasta tanto no haya recaído sentencia firme en la reclamación planteada o se desistiese de las acciones emprendidas.

*Artículo 8.–* 1.– Una vez que la Administración Sanitaria conozca el precio y demás condiciones de la transmisión, las pondrá a disposición de los farmacéuticos con oficina de farmacia instalada en la misma zona de salud, en los casos en que en dicha zona no se alcance la proporción de 2.500 habitantes por oficina de farmacia, para que, si lo estiman oportuno, presenten solicitud de amortización de dicha oficina de farmacia bien en los términos contenidos en la propuesta de transmisión o bien en los términos que pacten las partes interesadas.

En todo caso, la solicitud de amortización se deberá formular en el plazo de 15 días e irá acompañada del aval que garantice el abono del precio acordado y del justificante de abono de las tasas que, en su caso, al efecto pudieran determinarse.

2.– En el caso de que se autorice la amortización se dará por resuelto el expediente de transmisión iniciado y se procederá al cierre de la oficina de farmacia.

*Artículo 9.–* 1.– Si la amortización no se produce, las condiciones concretas de la propuesta de transmisión se harán públicas, mediante el anuncio previsto en la Ley de Ordenación Farmacéutica, para conocimiento de los interesados en la adquisición, concediéndoles un plazo de quince días para que presenten la siguiente documentación:

a) Aceptación de las condiciones de la transmisión en los términos previstos por el farmacéutico transmitente.

b) Méritos que se aleguen a efectos del baremo.

2.– La aceptación del precio y demás condiciones de la transmisión se considerará vinculante para el solicitante.

*Artículo 10.–* 1.– Una vez finalizado el plazo de 15 días a que se refiere el artículo anterior, se procederá a la valoración de los méritos alegados por quienes hayan aceptado el precio y demás condiciones establecidas por el transmitente, proponiéndose la transmisión en favor de quien mayor puntuación haya obtenido conforme al baremo que aparece como anexo al presente Decreto.

2.– Las circunstancias establecidas en los baremos se deberán acreditar documentalmente. Las relativas a experiencia profesional o docente se acreditarán mediante certificación de la autoridad o responsable correspondiente.

3.– Cuando se trate de acreditar ejercicios profesionales compatibles entre sí, sólo se computará el de pun-

duena baino ez da hartuko baremorako.

4.– Eskabidea botikario bik edo gehiagok egiten badute, elkarren artean beren jabetza eta titularitatea ezkonduta, honako arauon arabera neurtuko dira aurkeztutako merezimenduak:

a) Eskatzaile guztien jabetza ehuneko berekoa izaten bada, punturik gehien dituenaren merezimenduak hartuko dira kontuan eta 0,2 puntu gehituko zaizkio.

b) Eskatzaile guztien arteko jabetza ehuneko berean zatitzen ez bada, jabetzarako ohartemandako ehuneko berean hartuko dira merezimenduak ere.

5.– Botika erosteko interesa duten botikarioek erosteko eskabide bat ere egiten ez badute finkatutako epean, botikaren ugazabak, bi urteko epean, 3 urtez lanbide horretan ihardun duen beste edozein botikariori aldatzeko ahaleginak egin ditzake. Hala ere, dekretu honetako 7.1. atalean aipatutako moduan, eskualdaketa egiteko eskaintza aurkezterakoan zehaztutakoak badira azken kasu horretan egingo den eskualdaketarako baldintzak.

Bestela, agiritegian gordeko da espedientea, eta beste espediente berri bat hasi beharko da botika eskualdatzeko asmotan jarraitzen badu botikarioak.

*11. atala.*– 1.– Merezimenduen balioespena egin ondoren, lehiaketan parte hartu duten guztiei emango zaie horren berri, egoki iritzitako erreklamazioak egin ditzaten 10 eguneko epean.

Botika erosteko eskabide bat baino ez dagoenean ez da merezimenduen balioespenik egin beharrik izango.

2.– Erreklamaziorik balego, erabaki eta gero, proposatutako izangaiaren alde emango da eskualdatzeko baimena. Baina, erosle den botikarioak baldintza bat bete beharko du: botika ihardunean jartzeko baimena lortu beharko duela, alegia.

3.– Eskualdaketarako baimena izangai baten alde eman eta gero, beste eskatzaile guztiek bi aukera izango dituzte: edo eskualdatzeko baimena esktzeko espedientean parte hartzen jarraitzeko eskubideari uko egitea edo, bestela, espediente horretan jarraitzea, agian ez hasieran proposatutako botikarioak, ez bere hurrengokoek, botikan iharduteko baimenik lortuko ez dutelako.

Zerrendan aurretik dagoen izangaiari botikan iharduteko baimena lortzeko epea agortu zaiola Administrazioak jakinarazten duenetik hurrengo 10 egunak bete arte egin dakioke uko eskubide horri. Baina, horrek ez du sortuko atal honetako 7. idazatian ohartemandako ondoriorik.

4.– Atal honetako 2. idazatian aipatutako eskualdaketarako baimena eman eta gero, 2 hilabeteko epea izango du esleipendunak botikan iharduteko baimena eskatzeko. Eskabidearekin batera honako hauek aurkeztu behar ditu:

a) Eskualdaketarako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko agiriak.

b) Botika eskualdatzen denean botika hori kokatuta dagoen lokala erabiltzeko eskubideak harekin batera aldatzen ez badira, eskualdaketarako baldintzak bete-

tuación más alta de entre los que se hayan desarrollado simultáneamente en el tiempo.

4.– Cuando la solicitud sea formulada por dos o más farmacéuticos para adquirir la oficina de farmacia, en régimen de copropiedad y cotitularidad, los méritos alegados se computarán conforme a las siguientes reglas:

a) Si la proporción de copropiedad prevista es igual para todos los solicitantes, se computarán los méritos del de mayor puntuación más 0,2 puntos.

b) Si la proporción prevista para la propiedad no es igual para todos los solicitantes, los méritos alegados se computarán en la misma proporción que la prevista para la propiedad.

